

DOLORES ALEIXANDRE

“Sagrado Corazón” kongregazioko erlijiosa da. Teologian eta Hiru-hizkuntzatak Biblia Filologian lizentziatua da. “Comillas” Unibertsitatean “Sagrada Escritura” izeneko arloko irakaslea da. Bere eginkizunen artean aipa ditzakegu: pastoralgoan lana egitea, San Ignazioen izpiritualtasuneko ihardunaldiak zuzentzea, giro herrikoietan emakumeen animatzaile izatea...



Bere idatzien artean “Círculos en el agua”, “Mujeres en la hora undécima” liburuak aurki ditzakegu.

Bere kristau eta teologiko pentsamenduak emakumearen eskusio eta ausentzia kontutan izan arren, honen partaidetasuna, bai gizartearen, bai elizan bultzatu nahi arren; Doloresen azken helburua Erreinua da eta ez feminismoa.

Gogoia Foroan, 1.996ko urrian egindako hitzaldi honetan, Bibliara modu berri batean hurbiltzen da, teologia egiten duen emakume bezala.

“EMAKUMEOK BIBLIA IRAKURTZEN DUGUNEAN”



EMAKUMEAREN BEGIEKIN BIBLIA IRAKURTzea

Emakumearen begiekin Biblia irakurtzea. “Emakumeok Biblia irakurtzen dugunean”. Beste modu batez, gozatuz, Biblia deskubritzea.

Arbasoetatik jaso dudana gauza bat humorea da, eta oso terapeutikoa denez, asko lantzen dudana gauzetako bat da. Emakumeek egindako teologiari buruz ari garenean, zein gaizki doan dena eta zein zoritxarra dugun azpimarratzea da dugun arriskueta bat. Nik ez dut izan nahi Evaren alaba herbesteratua; nahiago dut Sara irribarretsuarengana jotzea. Sara Abrahamen emaztea zen eta farre handiak egin zituen Jainkoak ama izango zela esan zionean. Eta ez dut uste horregatik Jainkoa haserretuko zenik.

Fidel Aizpurua nafartarrak idatzitako liburu zoragarri baten hitzaurrea egin berria dut: “Emakumearen begiekin begi-

ratzea”. Liburu honetan zenbait emakume aztertzen ditu eta zenbait pista ematen ditu, emakumeen talde-lanak bultzatzeko. Eta nik hitzaurrean emakumeen talde-lanak bultzatzeko eta ez gizonezkoen talde-lanak ere bultzatzeko erabiltzea kuestionatzen dut, liburu honek oso pista onak ematen bait ditu. Gizonezko askok irakur dezatela (nik pentsatua dut nori oparitu), eta ez pentsatzea emakumeen gauzak besterik ez direla. Bestela begira zenbat gizon zaudeten hemen. Zorionak! Zorionak etorri zaretenok pentasatu gabe hau emakumeen gauza bat besterik ez dela.

Pena bat da gizonezkoek horrela pentsatzea, asko galtzen dutelako. Biblia estereotipo irakurtzea eta entzutea galtzen dute, mono moduan irakurri eta entzun beharrean. Eta a ze nolako desberdintasuna entzu-

teko kaskoak jartzen ditugunean, entzungailu bat bakarrik erabili beharrean... Baina bakoitzak bere gustoak ditu.

Gu Bibliaz gozatzen hasiko gara, Jesusek Lukasen ebangelioan esaten duen moduan. Lukasen ebangelioa oso feminista da, emakumeak asko estimatzen ditu. Lukasek txanpona galdu ondoren, txanpona aukitzeko dena eskobatzen eta astintzen hasi zen emakumearen parabola kontatzen digu.

Hau da guk egin behar duguna: garbitasun orokorra Biblian zehar eskoba eta biltzeko tresna eskuan dugula, dena ondo astinduz, hautsarengatik ezkutuandauden hainbeste gauza argitzeko asmoarekin.

Ordu bat besterik ez dugunez arin-arin joan beharko gara. Aditz batzuk erabiliz garbiketa egiten saiatuko gara. Zer egin beharko genuke gizon eta emakumeok Biblia zabaltasunez irakurtzeko?

BERREZAGUTzea lehen aditza izango litzateke. Hau da, ez kezkatzea, ez kezkatzea Biblia liburu neutroa ez izateagatik. Biblia ez da liburu neutro bat. Gizarte patriarkal batetan

bizi diren gizonek idatzi dute. Israeldar gizartean gizonek agintzen zuten, emakumeak obeditzen zuten, eta horregatik ikuspuntu androzentriko batetik abiatzen gara. Jainkoaren Hitza horrela haragitu da. Nola daude emakumeak Biblian? Ba oso gaizki, batez ere Itun Zaharrean.

Emakume bat jaiotzen zenean, familiarendako berri txarra izaten zen. Rakel, erditzeko garian oso gaizki dagoenean, mutil bat jaioko dela esaten diote. Berak beti mutilak erditu nahi zituelako.

Haurtzaroan eta gaztaroan emakumea aitaren menpe egoten zen, eta honek zorrak ordaintzeko alaba sal zezakeen. Ondoren emakumea senarraren menpe egoten zen. Hezkuntzarik ez zuen jasotzen - Nazareteko Mariak ez zekien seguraski ez irakurtzen ez idazten-

Deuteronomiok esaten du: “Ez diozu ondokoari ez etxea, ez emaztea, ez astemea, ez esklabua lapurtuko”. Emakumea gizonaren ondasunetako bat dela argi dago.

Emakumearen eginbeharra seme-alaba asko izatea izaten zen. Hau betetzen ez bazuen gizonak gaitzetsi zezakeen.

Gizonak beste gogokogo bat aurkitzen bazuen, zuen andrea gaitzetsi zezakeen. Emakumeari jana-ria erretzen bazitzaion, gizonak andrea gaitzetsi zezakeen. Jesusen garaian gauzak horrela ziren.

Zein da Jesusen jarrera guzti honen aurrean? Ezkontza eta dibortzioaren doktrinak emakumearen eskubideak defendatzen ditu. Jesus marginatu eta gaizki pasatzen ari direnen alde azaltzen da, kasu honetan emakumearen alde. Itun Berria askatasun iturri bat da, Jesusen indar transformatzailea. "Mulieris Dignitatem" eskutitzako bostgarren kapitulua zoragarria da. Kapitulu honetan Aita Santuak ebangelioetan Jesusen emakumeekin dituen topaketak aztertzen ditu.

Biblian gauzak horrela dira, eta hau onartu behar dugu. 40 mende pasa ondoren zenbait gauza oraindik mantentzea bai dela onar ezina. Adibidez Talibanak. Larriena orain gertatzea da.

SUSMATZEA

SUSMATZEA da bigarren aplikatuko dugun aditza. Feminismoaren ikuspuntutik Biblia irakurtzen dugunean aditz hau oso erabilia izaten da. Testu baten aurrean gaudenean printzipioz susmatzea.

Hau da: Testuak al dira emakumearen irudi bibliko negatiboaren errudun bakarrak? Edo Biblia irakurtzen dugunean erabiltzen ditugun begiak ez al dira ere gaixorik egongo? Noski. Batzuetan arazoa ez da hizkiak txikiak izatea. Arazoa nere begi edo nere betaurrekoetan dago. Askotan gaizki hurbildu gara Bibliara, eta ez da testuaren errua, gure begiradaren errua baizik. Ez al ditugu askotan irudiak distorsionatu eta ez al ditugu irakurri ditugun gauzak nahi genuen bezala erabili? Adibidez: Adanen saihet-saren gaia. Narratzailearen asmoa iraulkorra da feminismoaren ikuspuntutik. Narratzaileak emakumeak eta gizonezkoak naturaleza, identitate berdina dutela azpimarratu nahi du: "Bere haragiaren haragia, bere hezurren hezurra". Eta hau horrela ulertu beharrean emakumearen gutxiengotasuna jaso dugu testu hauetatik, arategi diskriminatorio asko horrela fundamentatuz.

Denbora luzez ere irakurri izan dugu emakumea bigarren leku-koa, sekundarioa edo laguntzailea zela, gizona hobezina eta eredugarria zen aldi berean. Eta hau Jainkoaren nahia zelakoan egon gara, guk asmatutako gauzak berarengan ipiniz.

Elizak hiru urtez igandero egiten dituen Bibliako irakurgetan hautaketa bat izaten da. Hautaketa hau egiten duen batzordea gizonez osatua dago, emakumerik ez egonik batzorde honetan. Hau dela eta, aukeratzen dituzten irakurgetan ia emakumerik ez dira azaltzen, eta emakumeak azaltzen direnean, adibidez ohizko denborako 20. asteko larunbatean, Ruthen liburua irakurtzen da, baina ondoren irakurtzen den salmoak gizonezkoa gorai-patzen du, esanez: "Zorionsua Jainkoa errespetatzen duen gizasemea eta bere bideak jarraitzen dituena, zure emaztea etxe erdian mahasparra emankorra bezala...". Eta orduan esaten diot nere buruari: Ruth da! Ez al geunden Ruthi buruz hitzegiten? Zergatik hitzegiten didate gizon horren zoriontasunaz?

Gizonezkoa garrantzitsuena da eta emakumea bigarren plano batetan geratzen da, gizonari zorionsu egiteko, mahasparra bezala, itzala emanez gizona azpian eser dadin. Hau injustua da.

Efesotarren eskutitza irakurtzen digutenean esaten digute: "Emakume, egon zaitezte zuen senarren menpe, Kristo bere elizaren menpe dagoen bezala".

Belaunaldi osoak hau entzun dute. Juan Pablo II ak "Mulieris Dignitatem" entziklikan esan digu hau nola ulertu behar den: Maitasunean sumisio erreziprokoa. Baina adierazpen hau ez digute gehienetan ematen eta jasotzen dugun mezua okerrera da.

Errealitatea egiarekin nahastea beste akats larrienetako bat da. Adibidez Genesian esaten denean: "Minez eta nekez erdituko duzu...", zure senarraren menpean egongo zara", hori ez da egia, errealitatea baizik. Hau narratzaileak ikusten duena da, berak ikusten duen errealitatea adierazten du.

Egia, zer da? Egia Galatasen eskutitzan Paulok esaten duena da: "Kristorengan ez dago ez jopu ez askerik, ez judeotar ez jentilik, ez emakume ez gizonezkorik, Kristorengan denok bat garenez". Egia hau da, Jainkoaren proiektua. Baina errealitatea askoz pobregoa da. Bidean dagoen errealitate bat da. Herri baten konstituzioaren antzekoa da. Denok lana izateko, etxebizitza izateko eskubidea dugu... hau egia da, eskubide hauek ditugu, baina errealitatea desberdina da. Zenbat jende bizi den lanik eta etxebizitarik gabe! Lortu beharrekoa egia errealitate bihurtzea

da. Bibliak askotan gertatzen ari dena esaten digu baina hau ez da askotan Jainkoaren proiektua.

Bada beste adibide oso interesgarria. susmatzearen ikuspuntutik. Emauseko diszipuluei buruz hitzegiten dugunean: Nor ikusten duzue? Bi, zer? Bi gizoneko. Testuak ez digu ezer esaten. Baten izena Kleofas dela esaten digu eta besteari buruz ez digu ezer esaten. Eta guk automatikoki gizonak direla pentsatzen dugu. Adibidez, Jesusek esaten duenean binaka bidali zituela, gizonetako bikoteak imajinatzen ditugu, honi buruz ezer jarri ez arren. Zergatik ez bi emakume, matrimonio bat? Beti gure buru koadrikulatua agerian geratzen da. Koadrikula hau astindu beharko genuke. Paper zurian idatzi beharko genuke ea zer ateratzen den.

HASERRETU

Susmatzeaz aparte, batzuetan gaitzi izan behar dugu. **HASERRETU** behar dugu. Haserretu behar dugu zenbait testu misogino, dramatiko batzuen aurrean: Abrahamek Agar basamortura botatzen duenean, Dina bortxatzen dutenean, Jeftek bere alaba sakrifikatzen duenean, legeek harrika eginez neskatoak hiltzen dituztenean... Lebitaren emaztearen bortxaketa eta

heriotzaren testua (Interneten agertzen diren testu pornografiako antzekoa) irakurtzen dugunean.

Une honetan Oseas profetari buruzko ikastaro bat ematen ari naiz. Dakizuenez bezala, Jainkoaren agindua jarraituz, Oseas prostituta batekin ezkondu zen. Biblian honi buruz agertzen diren testuak oso gogorak dira, mingarriak zenbait sensibilitateentzako. Hau dela eta urte askoz kristauak ezin izan dugu Itun Zaharra irakurri izan. Gogorregia zela eta monjak, konzilioa iritsi arte, Itun Berria, Salmoak eta "Kempis" a besterik ezin izan dugu irakurri, Itun Zaharrarekin izan dugun topaketa nere ustez zoragarria izan arren. Baina badira haserrea sor arazten diguten hainbat eta hainbat testu, gaur egun gauza berdinak gertatzea haserre handiagoa sortu arren: Azken gerratean bortxatuak izan diren emakume bosnatarren kopurua zenbatzen dugunean, talibane emakumeak estalkietan zorroratzen dituztela ikusten dugunean, gaur egun klitorisaren ablazioa milioika emakumeei egiten zaiela entzuten dugunean... Hau bai dela jasan ezina! Hainbat mende pasa ondoren emakumeen eskubideak horrela zapaltzea hainbat kultur eta herrialdetan!

IRRIBARRE EGITERA

Baina goazen orain **IRRIBARRE EGITERA**, haserretu ezin baigara bizi. Testu misoginoak irakurtzen ditugunean "moñoan" grabatutakoak izan direla imajina dezagun. Imajina ezazue herri edo auzo bateko tabernan zaudetela eta gizonetakoak, partida botatzen eta telebistako partidua ikusten ari diren bitartean, emakumeetaz ari direla. Imajina ezazue norbait etorri eta emakumeetaz nola hitzegiten duten idazten hasten dela. Ba Biblian agertzen diren testu ugari horrela jasoak izan dira, gizonetakoaren ikuspuntua, besterik ez, kontutan izanik.

Orain imajina ezazue norbait iturri batetara joaten dela emakumeek bilduta gizonetakoak buruz esaten dutena jasotzeko asmoarekin. Dakizuenez bezala iturriak biltzeko guneak ziren aintzinean; emakumeak uraren bila joaten ziren, ardiak ura edatera ematen zituzten... eta gure diskotekatan gertatzen den moduan han aurkitu eta maitemintzen zirela: Eleazar eta Rebeka, Jakob eta Rakel, Moises eta Sephora... Iturrietan esaten zenak emakumeen ikuspuntua jasotzen zuen baina hau Biblian ez dago jaso. Biblian gizonetakoaren ikuspuntua baka-

rik dago jaso. Aipa ditzagun irribarra sor arazten diguten zenbait testu (Jakinduriako testuak okerrenetakoak dira): "Emakume liskartiarekin baino hobea da azoteako izkin batetan bizitzea", "Jenio txarra duen emakumeak eta egun euritsuan sortzen den etengabeko itoginak bikotea osatzen dute", "Emakume suminkorrak hartzeren aurpegi iluna jartzen du senarra lagunekin eseritzen denean", "Emakume mutiria senar pazientearen etxean agure zaharraren oinerako harezko maldaren antzekoa da". Gaiztoa behin eta berriro emakumea da. Zakariasen 5.kapituluan beste testu bitxi bat agertzen da: "Nirekin hizketan ari zen aingeruak esan zidan: Jaso begirada eta begira ezazu agertzen dena. -Zer?, galdetu nuen. -22 litroko ontzi bat, hain handia da herri osoko errua -erantzun zidan. Orduan berunezko estalkia goratu zen eta ontziaren barruan emakume bat eserita azaldu zen. Ontziaren barrura bultzatu zuen eta berunezko estalkia berriro gainean jarri zuen".

Irria sortzen duen beste esaera zahar bat ondoko hau da: "Adimenik gabeko emakumearen edertasuna eta urrezko erreztuna txerriaren muturrean antzekoak dira". Eta nik beste

bat proposatzen dizuet: “Gizon aluaren askitasuna eta zinta purpura burusoilaren buruan antzekoak dira”. Ikusten duzue-nez falta den erantzuna da, baina hemen gaude emakumeok Bibliaren garapena borobiltzeko.

Zerk sor arazten du irribarrea? Nere ustez mesprezu adierazpen hauen azpian beldurra dago, gauza ezezagunei gizon eta emakumeok diogun beldurra. Emakumearen misterioak sortzen duen beldur inkon-szientea, gizonaren kontrolpean ez dagoen konsistentzia eta indarra. Horregatik emakumea gaiztotzat hartzen da eta kultur guzietan ezkutatu beharrekoa da. Emakumeak gaua, iluntasuna, hezetasuna dakarkigu gizonak argitasuna dakarren aldi berean. Joku honetan gaua kontrolatzen ez duenak, ezagutzen ez dituen aspektu asko ez ditu kontrolatzen: sentimenduak, sensibildadea, afektoen erabilera. Hau dela eta gizonezkoari txistea, barra egitea askoz errazagoa egiten zaio Biblian. Aholku modura ba, testu hauen aurrean ondo pasatzea.

ABEGI EGITEA beste aditz bat izango litzateke. Abegi egiteak, sakonduz, Biblian hari sakon eta sekretoak aurkitzea da: Exodoa, basamortua, herbestaldia, esnea eta ezta darion lurra, bazkoa, aliantza, begi guzien malkoak irakuzten diren anai-otoruntza, zokoratu edo zapaldua dagoen gizasemearen askatasunerako bidearen dinamismoa... Bibliako sinbolo guzti hauek dira gure benetazko egia osatzen dutenak, Gizateriaren kiko Jainkoak duen ametsa, guk jorratu behar ditugun bideak. Ikuspuntu honetatik ohar zaitzte zaurgarritasunak duen indarrak, Isaiasen liburuko jopuaren kantuetatik, soldaduak ireki duen Jesusen sai-hetsaraino. Ohar zaitzte nola Biblian zehar zaurgarritasunak indarkeriak baino efektibotasun gehiago duen. Ohar zaitzte nola emakumearen bitartez Jainkoaren ekintza gardenago agertzen den, emakumeak botere eza, eduki eza, ezjakina... errepresentatzen duen neurrian.

Biblia osatzen duten liburu guztiak, idatzi ziren garaia kontutan izanik, kronologikoki ordenatuko bagenitu, Miriamen Kantikoa izango litzateke lehen idatzitako testua: “Abes diezaigun Jainkoari, goitiarra da

bere garaipena, zaldi eta gurdi itsasoan eragotziak”. Hau, Denboraren kantuarekin batera, Biblian gogoratzen diren testu zaharrenetakoak dira.

Kantu hauek, Ana, Samuelen amarenarekin, Magnificat edo Judithen kantuarekin, edo Mariaren kantuarekin batera, emakumeen ahoan jarriak dira. Emakumea bere merezimenduetan oinarritu ezin denez, Jainkoaren ekintza, Jainkoaren lana askoz errazago gauzatzen uzten duelako. Jainkoak ahultasunarekiko duen preferentzia, emekumeen alde dago.

Pentsa dezagun munduan zehar egoera larri batetan dauden hainbat eta hainbat emakumeengan, “El País” egunkarian agertzen diren argazkietan sei urte dituen neskato bat oin-hutsik besoetan Zairetik ihes egin nahian besoetan daraman emakumearengan... eta orduan pentsatzen dut: zenbat sufritu behar duen oraindik neskato honek! Bada fenomeno bat pobrezia feminizazioa deritzoguna. Egoera larri batetan emakumeak sufrimendu gehitu bat duela, bere arraza, egoera ekonomiko edo bere diskriminazio sexualarengatik.

Orduan Jainkoa gauza txikien alde dagoela gogoratu behar dugu. Honek bapatean erre-

kontziliatzen gaitu, emakumeen mugimendu guzti hau, beste edozein kolektibo zokoratuaren burruka eta askatasun bilakera-ekin, oinarrituz.

BERRAIPATZEA Erabili behar dugun beste aditzetako bat **BERRAIPATZEA** da: Ongiegi dakigu, Biblian agertzen diren Jainkoaren izenak eta tituluak gehienetan maskulinoak direla: Jauna, Artzaina, Aita, Erregea, Epaila jauna, Senarra. Jainkoak iragarri zuen Mesias gizonezkoa eta ez emakumezkoa, nagusiki iragarle gizonezkoen bidez mintzatu zen eta ez emakumezkoen bitartez, eta antropozentrismoa androzentrismoren hitzetan dago adierazita.

Egia da Israelek ihes egiten zuela Jainkoaren irudi femeni-noetatik, bere mintzaira irudi femeni-noz kutsatzeko beldur zen, eta horregatik bere Jainkoa jainko jeloskorra izan da. Horretaz hitz egiteko modu bat, ugalkortasunaren jainkosa asko gurtzen zituzten kultu kananeoetara ez hurbiltzea izan da. Zera gertatzen da, emakumezko bat hasten denean bilatzen izenak eta tituluak Jainkoarentzat, konturatzen da maskulinoen ugaritasuna handiagoa dela, eta orduan ohar-

tzen gara baietz, badaudela Jainkoaren aspektu femenino batzuk, ez dela ez gizona, ez aita, ez ama, edozein sexu-errepresentazio baino harantzago dago. Zera gertatzen da, patriarka-herri batean, kultura horrekin, irudiak gehien bat maskulinoak dira.

Baina Jainkoak nahi duenean aitortua izatea eta bere iragarleak bidaltzen dituen bere nahi komunikatza, orduan Jainkoa hasten da <<zu>> bat izaten bere herriaren aurrean. Harreman-Jainko baten agerkunde hau guztia, bere herriarekin elkarriketa jarreraren dagoena, harreman hori beti agertzen da subiranotasuna baino garrantzitsuago, edota Jainkoaren bakartasuna baino garrantzizkoagotzat joa. Itunaren harremana da, eta honek zirkularitatea sortzen du. Horrexegatik agertzen dira horren maiz ezkontza irudiak eta Ama-Jainko baten irudiak. Biblian, "umetoki" hitza, amaren sabela, hebraieraz "regen" esaten dena, Jainkoaz hitz egin behar denean, maitasunaz, Jainkoa "rajun" dela esaten da, hau da, erotik ateratako aditz-adjetibo bat erabiltzen dute, eta umetokiari dagokio. Israel, Jainkoaren samurtasunean bilduta dagoela sentituko balu bezalaxe da, umetokia beroa-

ren barruan dagoen bezalaxe, babesean, amaren sabelaren aterpean. Oso irudi femeninoa da, hala nola den, Deutoronomiok dioen arabera, bere hegoen gainean txitoak daramatzen hegaztia, arranoaren moduan, edota Jesusen irudia bera, Mateoren Ebanjelioan "zenbat aldiz Jerusalem bildu nahi izan zaitudan oilo batek bere txitoak bezalaxe, eta zuk ez duzu nahi izan". Bai, irudiak izan dira, agian errealtateak ere bai. Elikaduraren eginkizuna, jaten ematea, emakumezkoari dago-kio, haurrari bularra ematen diona bera denez geroztik, eta gehienetan emakumea delako elikagaiekin harremanetan egoten dena, kultura gehienetan bera da elikagaiak prestatzen dituen.

Badago poster ikaragarri polit bat "Justizia eta Bakean" egin zutena, Indiako emakume batek margotua, eta bertan Itun Zahar eta Itun Berriko emakume-irudiak ageri dira. Erdian mandorla bat dago, eta emakume bat ageri da irina duen ontzi batekin eta ematen du oratzen ari dela. Badirudi, erdian, emakumearen eginkizun hori ote zegoen, jaten ematearena alegia. Errepara iezaiozue Gensianen hasieratik ageri den irudi zoragarri horri. Hauxe da Jainkoa, gizakiaren aurrean,

gizon eta emakumearen sortzaileak dioena: - "belar berde guztia ematen dizuet elikagai moduan". Jainko kezkatua, Exodo 16. ataleko Jainkoa, bere herriari jaten ematen dion manaren Jainkoa, ogien ugaltaren Joanen ebanjelioko Jesus bezala, bere herriari jaten ematen dion Jainkoaren ama-irudi horixe bera da.

Aldegiten duen jaunaren parabola, Lukasen testuan, Espainiako Biblia Berriak egiten duen itzulpen oso polita da. Jaun horrek itzulitakoan ikusi zuen morroiak bere zain zeudela eta orduan honela esan zuen: "gerria lotu eta zerbitu egingo diet". "Gerrikatu" aditza grekotik dator, eta besteak beste, mandarra jartzea ere esan nahi du. Hau da, pertsona batek lotu ahal du mandarra, edota tunika, baina bertsioetariko batek honela dio: "mandarra jantzitakoan zerbitzatu egingo die". Gure burua beteta dugu Jainkoaren irudiz, baina norabide bakar batean, eta ez bestean. Iragarleek honetan ikur-aberastasuna dute, Jainkoari buruz hitz egiterakoan aberastasuna.

Gogoratzen dut orain dela hiru urte Loiolan izan zela munduko gogo-ihardunaldi biltzarra. Gogo-ihardunaldiei buruz ikaragarri zekiten josulagunak

jakintsuak ziren. Emakume talde bat ginen han eta jeneralean isilik geunden, zeren eta josulagunek guk baino askoz ere gehiago baitzekiten gogo-ihardunaldiez, normala den bezala, eta hala ere, une batean, nahiz eta nik erabakita nuen ez nuela ahoa ireki behar, halako batean konturatu nintzen eskua altxatua nuela. Mahaian ziren bi josulagunen arteko eztabaida zera zen, ea San Ignazioren idazlanetan ageri diren Jainkoaren irudiak soilik jauna bezala, edota, ea bere garaiko mistikengan bezalaxe, Gurutzeko San Joan, Santa Teresa, ageri den senarraren ezkontitz-irudirik. Hor ari ziren jauna eta senarra-ekin, senarra eta jaunarekin. Hura, tenis partidua bezalakoa zen, jo eta ke, eta orduan hauxe esan nuen: "uste dut eztabaida oso itxia dagoela, eta Biblian orokorrean, baina iragarleek bereziki hitz egiten dutenean Jainkoari buruz esaten dute kumeak kendu dizkioten hartzemea bezalakoa dela, pantera bezalakoa, lehoia bezalakoa, altzifre bezalakoa, txantxarra bezalakoa, ihintza bezalakoa, euria bezalakoa". Jakina, irudiak ikusten hasten naiz, baina liturgian Jainko guztiz ahaltsua eta betierekoa baino ez dugunean kontserbatzen, orduan batek pentsatzen du, mintzaira biblikoarekin sentibera den

norbaitek zera esanen balu:- O, hainbeste maite gaituzun Jainkoa! galtzen gaituzunean, bere kumeak kendu dizkioten hartzemea bezala jartzen zara, edota lehoi batek bere harrapakina bezala jazartzen gaituzu!, jendea zur eta lur geldituko litzateke, baina azken batean hurbilago geundeke, zeren eta Jainkoaz ezin baitugu hitz egin, Jainkoari buruz ezin gara mintzatu moteltasunez baino, eta ezin ditugu estereotipatu irudi batzuk jada Jainko ahalguztidun eta betierekotzat, eta beste gauza asko. Pasadizoa osotuko dizuet: egundoko nahastea sortu zen, nik nioen horretan hainbat piztia zegoen, bat-bateko itzultzaileek ez zekiten zer egin lehoiemearekin, panteraemearekin, txantxarrarekin, txitoarekin, zertaz, jakina, josulagunak eztabaida serio batean ari ziren, espirituzko gauza mamitsuz. Horretarako prest zeuden, baina ez inbasio zoologiko honetarako, ustekabeen harrapatu zituen eta ni arrunt erruduntasunez geratu nintzen.

Hau guztia da adierazteko, Aita Jainkoa esaten dugunean, beste irudi bat gehiago dela, Jainkoa gure semea dela esatea bezala. Zergatik ez? Jainkoaz beti metaforaz mintzatzen gara, irudiz, eta denak desegokiak dira. Zera zioen San Gregoriok: "kontzep-

tuek Jainkoaren idoloak sortzen dituzte, hunkidurak baizik ez du zerbait sumatzen". Niri zirrara handia egiten dit. Hau da, Jainkoaren misterioaren aurrean isiltasun sakona soilik, gu gainditzen gaituenaren aurrean isiltasuna baino ez da gai zertxobait hurbiltzeko, baina guk berehalaxe betetzen ditugu makina bat aldiz errepi-katutako esaldi asko. Honako proba hau egiteko iradokitzen dizuet, Aita gurea, Ama gurea zeruetan zarena, santu izan bedi zure izena... gauza bera da, egiten duen bakarra gure burua aberastea da, adimena irekitzen digu kontura gaitezen Jainkoarengan ematen dela amaren samurtasuna, aitaren babes osoa, edota alderantziz, zeren eta batzuetan aita baita samurra dena, eta ama erantzukizuna duena, auskalo!, zertaz orain kontzeptu-aldaketaren une batean baikara, emakumea eta gizona zer den orain ez da zerbait finkoa zentzu honetan, eta gauza askotan ematen du ez dela sexua, baizik eta kulturarena dela, generoaz orain mintzaten den funtsa.

Kontua orain zera da, Jainkoaren irudi femininoetara ere gure burua irekitzea, elikatzen nauen Jainkoa, jaten ematen didan Jainkoa. Pentsa ezazue adibidez, liturgian esaten badu-

gu "Zu Jauna, bizi emailea zarena, guretzat bizitasun iturria zara, biguntasuna zara, babes zara..." Jainko ahalguztidun eta betierekoa, Epailea, Artzaina, Erregea..., osatzen edo ordezkatzan duten gauza mota horiek. Gogo handitzea besterik ez, Bibliara hurbildu beste irudi ezberdin batzuk gogora dakizkigun eta jakin beti dena irudiak direla, zeren eta Joanen Ebanjelioak zioen bezalaxe, Jainkoa inork ez baitu inoiz ikusi.

GOGORATZEA Beste aditz bat **GOGORATZEA** izanen litzateke. Orain dela gutxi egin nuen Teologiako bigarren mailako ikasleekin. Hauxe esan nien: ea, patriarken izenak. Berehalaxe atera ziren denak lehoiak bezala, honako hau esateko: Abraham, Isaak eta Jacob, eta ondoren esan nien: ea, matriarken izenak. Isiltasun atsekabetua. Inork ez zioen deus ere. Bat-batean hauxe esan zuten: - Sara, Raquel. Maria jakina, gaixoa erori zen ahanzturarik sakonean. Hau, gurutzegramatik bat egiteko ere jakin beharko genuke.


Batez ere, pertsonaia maskulinoak ditugu, baina nik uste dut izan behar dugula kultur bibli-

ko zabalxeagoa, eta emakumeen izenak ere gogoratu beharko genituzke. Zerrenda bat egin genezake ikusteko zein izen ezagutzen ditugun eta zein ez. Sara, Agar, Rebeka, Raquel, Lia, Dina, Tamar, Séfora, Rajab, Jael, Ruth, Noemi, Betsabe, Micol, Abigail, Julda, Juana, Susana, Lidia, Damaris, Priscila, Jede. Gehienek ez dakite, ez dute erantzuten. Gehienok honelaxe geldituko ginateke: - Nor ote dira? Baina, aldiz, hauexek badizkiogu: David, Goliat, Pilato, mundu guztiak daki nor diren. Ez esan, ordea, ez duela amorraziorik ematen honelako ezjakintasun muntruosoak edukitzeak emakume-izenekikoa? Beraz, nahiz eta besterik ez izan, has zaitetzete Biblia irakurtzen eta emakume-izenak agertzen direnean esazue honako hau: - Hara zer ongi!, begira zer poza! Izen gutxiago ageri dira, proportziorik gutxiago daude, baina behintzat, dauden gutxi horiei eman diezaiegun merezi duten garrantzia.

Emakumeak behin ere ez dira agertzen Jesusen genealogian, Mateok honako hauxe dioenean: Abrahamek Isaak sortarazi zuen, Isaakek Jakob sortarazi zuen, Jakobek..., garai hartan ez zen ezagutzen emakumearen obulazioa, (nik uste dut ez

dela ezagutu XVIII.mendearen bukaera ar-te), pentsatzen zen gizonaren semenean zegoela haurra sortzeko behar zen guztia, eta emakumeak ez zuela deus ere jartzen, hartu baino ez zuela egiten. Emakumea ume-toki bat bezalakoa zen, zahagi bat, eta hara joaten zen, gero bizidun bat izanen zen guztia. Emakumea, axuria erretzen zen

labea bezalakoa zen, baina axuria eraman zue-narena zen. Emakumeak ez du sortzen, hartu besterik ez du egiten. Kontzeptu honetan, gizonezko guztiek sor-



tarazi zuten elkar, banan-banan, Abrahamek zera sortarazi zuen..., honako hau dioen arte: - Judá Tamaren bitartez sortu zen... eta gero, Salomon Rajadengandik sortu zen, David Uriasen emazte ohiarengandik. Bukaeran dio Jose izanen dela Mariaren senarra, Mariagandik jaio zela Jesus, eta honi Kristo deitzen ziotela. Orduan, persona batek antzeko zerbait irakurtzen duenean hauxe dio: Begira, lau emakume! lau perla ezanen dira, lau

emakume bikain, hoberenak, gaina eta lorea aukeratu dituzte. Gizon-zerrenda ikaragarri horretan lau baino ez, lau emakume besterik ez, eta orduan bat zoratuta doa Bibliara bilatzera. Liluragarria da, irakur itzazue mesedez.

Esate baterako, Genesiaren 38.atalean Tamarren historia

kontatzen digu. Israelen Levi-rato izeneko tradizioa zegoen. Gizon bat hiltzen bazen eta ez bazuen ondorengorik uzten, orduan anaiak ezkondu behar zuten alarguntsarekin, eta gero

izanen zuen haurra ez zen berea izango baizik eta hildako anaiarena. Orduan Judá patriarkak seme bat izan zuen, Tamar izeneko batekin ezkondu zen, eta semea hil egin zen. Onan izeneko bigarren semea eman zion, eta esaten duten arabera, semerik izan nahi ez zuenez (ez zuen bere anaiaren semerik izan nahi) semena lurrera isurtzen omen zuen. Hortik onanismoa. Seme hori ere hil egin zen, beste bat gelditzen zitzaion, eta orduan Judák pentsatu zuen

emakume horrek hiltzen zizkiola bere seme-alaba guztiak, eta ez zion eman, ematea tokatzen zitzaion beste semea. Eta orduan Tamarrek, ikustean ez ziola ematen, eta legea zen, zera egin zuen (Genesia liburuak hau zehatz-mehatz kontatzen du), emagalduz mozorrotu zen, bide ertz batean eseri zen, belo bat omen zeraman (polt-satxoaren baliokidea, bereizgarri moduan), eta orduan joan zen Tamar eta esan zion alargun zegoela; ez zuen ezagutu emakumea (beloarekin zegoe-lako), orduan, prostituta zelakotan, berarekin oheratu zen. Emakumeak hau esan zion: - Uztaidazu zerbait. Gizonak erantzun: - Zer nahi duzu? Bastoia, eraztuna eta silua eman eta aldegin zuen. Handik gutxira mandatu bat bidali zioten Judari: "zure erraina Tamar haurdun dago eta gainera legez kanpoko haurra da". Orduan Judak Patriarkarena egin eta esan zuen: "atera eta erre dezatela emakune hori!" Errainak orduan bastoia atera eta esan zuen: "bastoi, eraztun eta gerriko uhal hauen jabea etor dadila beren bila!" Juda konturatu zen, gure moraletik kanpoko arrazonomendu hau egin eta esan zuen: "Emakume hau zuzena da eta ni ez". Hau da, hemen ez dabilta gure kontzeptu moralak, beste etika mota bat dabil.

Eta hemen, emakumea da esku-bidea zuena, bera defenditzen zuen lege bat zegoelako. Bikiak izan zituen (ugalkortasunaren poza). Bera izan zen Jesusen genealogian agertu zen lehen emakumea, ni asaldatzen naiz, alajainkoa lehendabizikoarekin!

Geroago Betsabe ageri da, Davidekin egundoko estilua izan zuena. Eta azkenik Ruth. Ruth ona zen, ona baina "moabita". Moabdarra izatea, israel-darra ez izatea zen, aliantzaz kanpoko emakumea izatea. Emakume moabdarrek Biblian ageri dira baina modu penagarrian, guztiaren errua dute, israeldarrek egiten zituzten oker guztiak zen, emakume moabdarrek nahastu zituztelako.

Bukaeran Maria ageri da eta nik galdetzen dut, zer egiten ote du hemen Mariak inguratua? Hauxe bai dela lilia arantzen artean. Zoragarria da, zeren eta sakonean, horixe daudela genealogiaren azalpenak: bat zera da, Mariaren birjintasunezko jaiotza jarri nahi dute, era bitxia benetan, horrexegatik jartzen dizkiote birramona bitxiak Jesusi. Baina badago beste azalpen bat, niri askoz ere gehiago gustatzen zaidana, hori neronek diot, eta esanen dizuet, badaezpada ere gustatzen zai-

zuen. Honelakoxea da: haragi honetan, lokatz honetan, gu garen giza-nahaste honetan, zein familiatan ez ote dago osaba Adolfo bat Ameriketara bizikleta batekin joan zena?, beste bat, bankuan desfalko bat egin zuena, beste neska hori ama ezkongabea dena? Gauza horiek guztiak hor dadenak, istiluan, giza bizitzan eta Jesus lokatz horretan jartzen dutenak, <<gurea da>>, esanen balute bezalaxe, gure egoera hain merke honi dagokio, hain galdua, hain hondamendizkoa. Eta hortxe bizi da Jesus, ez da leinuzko familia batean jaiotariko, gure giza arrazan jaioa da, eta gizakiok honelakoak gara, eta, hala eta guztiz ere, etorri egin da eta hauxe hartu du bere gizatasunean.

Emakumeen presentzia, sako-
nean bikainak direnak. Biblian badago adjetibo bat emakume-entzat, niri zoragarria iruditzen zait, eta Ruthi buruz esaten dute, baina nik uste dut beste askori ere aplikatu ahal zaiela. Hebraierazko adjetiboa da eta ez da itzultzeko erraza, "jalin", baliabide-emakumea esan nahi duena, gutxi gora-behera, egoera zailtan erreakzionatzen dakiten emakumeak, alegia. Erabakia hartzen dute, aursartzen dira, Ebanjelioan ikusten dugun hori guztia. Zera,

Ebanjelioan emakumeek hitz egiten dute, hurbiltzen dira eta Jesusengana zuzentzeko ekimena hartzen dute, oihu egiten dute, bultzatzen dute, behin eta berriz ekiten diote, ikasle ibiltari bezala jarraitzen zaizkio, Jesusek goستن eta miresten ditu, bere parabolaren protagonista dira, Jesusekiko fidelak heriotza arte. Pazko goizean, hilobiraino joan ziren ziztu bizian, apostoluak izutu zituzten eta Berpizkundea iragarri zuten. Lehen elkartearen bizitzan ikusten ditugu emakumeak ekimenez beteta eta gogotsuak. Hau da, emakume kuzkur, lot-sati, beren etxeetan sartuak... eta beste mila estereotipoen guztiz aurkakoa. Egin ezazue, Ebanjelioan emakumei buruzko irakurketa begirada garbi eta ikusiko duzue nola harritu-ko zaituzten.

GAURKOTZEA Bukatzeko jada, bi aditz falta ditugu. Horietako bat **GAURKOTZEA** izanen litzateke. Hau ez da arkeologia, bideko emakume lagunek nola iharduten duten, horretan datza oraingo gakoa, Kontua zera da, oroitzapen horrek lagun eta anima gaitzala jarraitzea borrokan, eliza barruan eta kanpoan, Jesusen egitasmo inklusibo horren aurka dagoen guztiaren kontra. Zera,

emakumeak, Jesusek egin zuenaren kontzientzia ernea dira, egu-
nero eukaristian esaten duguna, gogoratzen dugu Jesusek egin zuena, ogia bere eskuetan hartu eta zaitu zuen, halaber gogoratzen dugu egin zuena, elkarte baterakoia sortu zuen, hau da, mahai biribil bat sortu zuen eta horretan denak eseri ahal ziren, eta aldi berean, pertsona guztiek susmatzen zuten han hesi guztiak desagertzen zirela, eta era berean ezberdintasunak, tarteak, sosak, arrazak, jakinduriak, dena urtzen zen. Han bazegoen berotasun antzeko zerbait, txarkeria hura guztia bukatzen zuena. Harremanezko bizitza, elkarrikotasuna senidetasunean, berdintasunean; egitasmo zoragarri horren antzeko zerbait. Horixe da erreinuaren egitasmo utopikoa. Horren aldera jo beharra dugu. Horixe dugu Elizaren egia. Beraz, hemen ez gara erreibindikazio feministarik egiten ari, hori ere beharrezkoa da, baina batez ere adierazi nahi dugu horixe dela, Jesusek zuen erreinu-egitasmoa. Hau ez da, zera, <<ken zaituz zu, nik jarri behar dut-eta!>>, askotan horrelaxe ulertzen baita, "zera, emakumeek boterea baitute", eta nik zera diot: - baina, zergatik ez? Beno, hau gero eztabaidatuko dugu, baina orain esan beharra dagoena zera da: - goazen amets egitera, edo amets egitera baino hobe, goazen Jesusen ametsa ent-

zuzera, goazen ikustera nola amesten zuen berak bere elkar-
tea. Eta ikusiko dugu topatuko ditugula, begirada garbi baldin bagoaz, gauza asko ikusaraziko digutenak, aurreratzeko bide handia dugula, eliza hori dugula eta ematen duela oraindik bizi dela bere zelula erdiekin. Irudika dezagun gorputz bat begi, belarri, beso, birika eta giltzurrun bana falta dituenak. Katastrofikoa, ezta? Erabateko hondamendia. Eta nik uste dut orain hasi dela funtzionatzen bizi organo atrofiatu askotan, eta horrexegatik dago istilua, sektore batzuetan egoezina dago zeren eta inurridura antzeko zerbait baitago zirkulatzen, eta jakina, ohitura dagoenez gero alde bakar batek funtziona dezan, pentsatzeko era bakarra, hitzaldiak egiteko modu bakarra...

Bukatzeko, azken aditza **OSPATZEA** izanen litzateke. Zer ospatu behar dugu? Pentsa ezazue adibidez, zeinen modu interesgarria izanen litzatekeen, liturgia ospatzea baina alderdi femeninoa sartuz. Pentsa dezagun, meza bukerako bedeinkapen-formulak esan beharrean, "gure aita Abraham, Isaak eta Jakoben Jainkoa", batzuetan esaten baita, pentsa dezagun honako bedeinkapenaren antzekoa egiten dugu-

la: -Bedeinka gaitzala Devoraren Jainkoak, bere herriari zuzentasuna agindu baitzion, Maria Magdalenari agertu zitzaion Jainkoak bedeinka gaitzala, bedeinka gaitzala Espiritu Santuak, bere biziaren berritasunarekin, gure gizon-emakumeen elkarteari arnasa ematen diona.

Bibliak arrazoia ematen digula ospatu beharra dago, zeren eta ahulari ematen baitio arrazoia, txikiari eta boteretik ez duenari. Ospatu behar dugu, exodoan doan herri batean txertaturik bezala bizi ahal izatea, exodoan dabiltzan beste hainbat gizakirekin batera, eta bere seme-alaben inongo zapalkuntzarik jasaten ez duen Jainkoaren laguntzarekin kontatu ahal izatea.

Jesusen indar berritzaileak gure artean bizirik dirauela ospatzea, eta gainera jakitea hortxe dagoela hausteko molde zaharrak, Jesusek esaten zuen. Harreman era zaharrak hautsi, eta harreman egoera anitzetan sartzeko eskaintzen digu aukera.

Polita litzateke bukatzea, Bi-bliako emakumeen gogorapena eginenez baina otoitz moduan. Bibliako eta Bibliaz kanpoko emakumeen hainbat aurpegi gogoratu behar ditugu, baliabideak dituzten hainbat emakume, hainbat emakume zauriturik, hain zanpatuak, hain fidelak ere,

gizonak izan daitezkeen bezain pekatariak, denok garen bezalako jendea, baina entzunarazi behar ditugun aho-tsak, gure inguruan dauden ahotsak, eta uste dut entzun behar ditugula. Goazen ba, Bibliako emakumeak gogoratzera, eta eskatzera, beraien bitartez bedeinkapena etor dakigula.

Jainkoak eman diezazkigula Devoraren adorea, eta Esther eta Judithen ausardia, eta pozez bete gaitzala, Ana bezala, eta leialtasun eta maitasunez, Ruth bezala. Kantatu eta dantzatu ahal izan dezagula itsaso ondoan, Maria iragarlea bezala, eta Nazareteko Mariarekin batera, aldarrika ditzagula Jaunaren handitasuna, goseti eta apalen garaipena.

Iritsi gaitzela topatzera Jesus Jauna, Maria Magdalenak, Martak, Salomek eta Samaria-rrak topatu zuten bezala, eta Berak, duintasuna eta askatasuna itzuli zizkien, eta izen berria eman zien. Eta makurtutako emakume hura bezalaxe, Bera hurbildu eta zuzendu zuen, gu ere bizi ahal izan gaitzela zutik, eta lagun diezagula beste batzuei zuzentzen, zeren eta emakume hori, gu, guztiok, gizon-emakumeok, deituak baikaude zutik jartzera eta aintza ematera Jainkoari.

Hala bedi.